

HAUR TTIKI BAT DUT ETA HAUR-ESKOLAN HASI BEHAR DUT

Ikasturte honen lehenengo hiruhilabetea gaude. *“Jadanik hasierako mamuak uxatzen ari dira. Gure zalantzak argitzen doaz, gure beldurrak lasaitzen... Ez zaigu iruditzen baina pauso zail bat eman dugu: Gure haurra haur-eskolan hasi dugu”.*

Hau esanez aritu zaiguna gure gelako guraso bat da. Haurra ttikia du, 4 hilabetekoa. Guraso batentzat jaio berria. Erabaki zaila hartu behar izan dute zalantzarik gabe eta hori garbi ikusten da jarraian esaten aritu den guztiarekin. Bere baitan behin eta berriro hausnartutako egoera azaltzen digu:

“Alde batetik entzuten dugu oso ongi daudela haur-eskolak, hurrei komeni zaiela txiki-txikitatik sozializatzea eta gauza asko ikasten dutela bere adineko hurrekin jolastuz eta abar. Beste aldetik irakasle edo hezitzaileei begira saiatzen zara zerbait jakiten eta esaten dizute halakoak edo beste hark asko balio duela hurrekin, esperientzia handia dutela, ongi daudela.... Eta ideia hauetaz baliaturik etorkizuneko planak egiten hasten zara: Nik haur bat izaten dudanean, hau eta hau egingo dut, haur-eskolara eramango dut eta ongi. Hotz-hotzean pentsatuta gauzak argi xamar dituzu baina momentua iristen denean konturatzen zara zeinen erraz esaten zenituen gauza haiek, benetan zertaz ari ginen asko konturatu gabe. Haur bat eskutan izan arte ez dakizu ongi zure barruan zer sentimendu mugituko diren eta egin asmo zenuena ez da uste zenuen bezain erreza”.

Bikote bat guraso egiteko bidean dagoenean, haur hori amatxoren sabelean pizten denean... indar handiko sentimendu berri bat jaiotzen da eta erreza da ulertzea guraso honek bere buruarekin duen borroka.

Jaio berri den haurra, gurasoek lehenengo aldiz besoetan hartzen dutenean, gauza asko, sentimendu berri asko azaltzen dira, denak pilatuak, denak nahastuak, ikaragarria bihurtu arte. Maitasuna da, ardura, zirrara... Zer ote dago mundu honetan seme-alabak baino gehiago maitatzen denik?

Neurri batean adin guztiek badute kezka bat eskolaratzeko garaia iristen denean, baina hilabetetako haur bat haur-eskolara eramaten denean pauso berezia da. Gauza asko mugitzen zaie barrutik gurasoei. Haurra beste etxe batera eraman behar izateak, zerbait garrantzitsua galduko duten sentsazioa sorrarazten die. Haurrak haur-eskolan jan behar du, han lo egin, jolastu ere bai eta gurasoen eginkizunak konpartitzen ikasi arte kosta egiten da. Gurasoen eginkizunak eta ilusioak, zeren etxean gure haurrari gela polit bat prestatu diogu, bere erritmoa jarraitzen dugu gure bizitza moldatuz eta momentu hunkigarriak bizitzen ari gara.

Ez dugu ahaztu behar, aitaxok edo amatxok, kasu gehienetan amatxok, lanera itzuli behar izaten duela eta lehenengo egunak gogorrek egiten zaizkiela bati baino gehiagori eta nahiz eta batzuk besteak baino lasaiago azaltzen diren, orokorrean sentimendu berezi bat daukate barruan guztiak.

Gauza asko dituzte hezitzaileari esateko eta hezitzaileak beraiei kontatzeko ere bai. Lan garrantzitsua daukagu elkarrekin egiteko. Gurasoek gure eskuan uzten dute gehien maite duten **balio handiko pertsona ttiki bat** eta hori ikuste hutsak, nahiko arrazoia da gure aldetik errespetu osoz eta ardura osoz jokatzeko.

Zeinen lan polita egin dezakegun guraso eta hezitzaileen artean; zenbat gauza eman diezaiokegun batak besteari!. Haurraren heziketak zutabe garrantzitsuak ditu: gurasoak eta hezitzaileak. Zutabe sendo horiekin asko irabaziko dute gure haur ttikiek.

Mila esker guregan konfiantza jarri duzuen guraso guztiei!. Gurekin ditugu Ander, Lander, Mirabela, Julen, Lore eta Udane. Animo! ikasturtea aurrera doa.

Beste guraso asko eta askorekin gertatzen zaigun bezala, zuekin ere geldituko zaigu betirako adiskidetasuna.